Bestelako Xedapenak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

4602

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 25ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, ingurumeneko baimen bateratua emateko dena zementua fabrikatzeko jarduerarako, Arrigorriagako (Bizkaia) udalerrian eta Sociedad Financiera y Minera sa -Cementos Rezolak sustatua.

AURREKARIAK

2005eko maiatzaren 26an, Ángel María Jiménez Zubiaguirre jaunak, Sociedad Financiera y Minera sa -Cementos Rezola enpresaren izenean eta ordezkaritzan, Eusko Jaurlaritzako orduko Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2005 Legeak xedatutakoaren arabera, Arrigorriagako (Bizkaia) udalerrian zementua ekoizteko jarduerarako. Eskaerarekin batera, dokumentazio tekniko hau aurkeztu zen:

– Oinarrizko proiektua (2005eko maiatza)

– Laburpen ez-teknikoa (2005eko maiatza)

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Sociedad Financiera y Minera sa -Cementos Rezolak, besteak beste, zementua fabrikatzeko 1960ko maiatzaren 24ko baimena zuen. Halaber, enpresa sustatzaileak baimen hauek zituen: kolektorera isurketak egiteko 2000ko ekainaren 20ko baimena; ibilgura isurtzeko 1993ko azaroaren 10ekoa; atmosfera kutsa dezakeen instalazioaren 2000ko abenduaren 14ko baimena; berotegi-efektuko gasak isurtzeko 2004ko abenduaren 27ko baimena; irinen energia-balioztagunearen 2001eko urriaren 15ekoa; hondakin ez-arriskutsuen kudeatzailearen 2003ko apirilaren 4koa; hondakin geldoen ekoizleen 2000ko irailaren 18koa; EAEko hondakin arriskutsuen ekoizle txikien erregistroko 2002ko azaroaren 22ko inskripzioa, eta ondorengo handitze eta berritzeak.

2005eko uztailaren 8an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidea adosteari dagokionez. Hain zuzen, Arrigorriagako Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari. 2005eko uztailaren 14an, txostena eskatu zitzaien Bilbao Bizkaia

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

4602

RESOLUCIÓN de 25 de abril de 2008, del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se concede autorización ambiental integrada para la actividad de producción de cemento, promovida por Sociedad Financiera y Minera, s.a.-Cementos Rezola, en el barrio Arane en el término municipal de Arrigorriaga (Bizkaia).

ANTECEDENTES DE HECHO

Con fecha 26 de mayo de 2005, D. Ángel María Jiménez Zubiaguirre, en nombre y representación Sociedad Financiera y Minera, S.A.-Cementos Rezola, solicitó ante el entonces Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco el otorgamiento de la autorización ambiental integrada de conformidad con lo dispuesto en la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, para la actividad de producción de cemento en el municipio de Arrigorriaga (Bizkaia). La solicitud se acompañaba de la siguiente documentación técnica:

– Proyecto Básico (mayo de 2005)

– Resumen no Técnico (mayo de 2005)

En el momento de la solicitud de la autorización de referencia, Sociedad Financiera y Minera, s.a. -Cementos Rezola tenía, entre otras, licencia de actividad de fecha 24 de mayo de 1960 para la fabricación de cemento. Asimismo, la empresa promotora disponía de las correspondientes autorizaciones de vertido a colector de 20 de junio de 2000, vertido a cauce de 10 de noviembre de 1993, autorización de instalación potencialmente contaminadora de la atmósfera de 14 de diciembre de 2000, autorización de emisión de gases de efecto invernadero de 27 de diciembre de 2004, de valorizador energético de harinas de 15 de octubre de 2001, de gestor de residuos no peligrosos de 4 de abril de 2003, de productor de residuos inertes de 18 de septiembre de 2000 y la inscripción en el registro de pequeño productor de residuos peligrosos de la CAPV de 22 de noviembre de 2002, y posteriores ampliaciones y renovaciones.

La Dirección de Calidad Ambiental con fecha 8 de julio de 2005 solicita informes a diversos órganos con intervención en el procedimiento, en orden a que por el Órgano Ambiental se acuerde el trámite de información pública del proyecto. concretamente, al Ayuntamiento de Arrigorriaga, al Departamento de Sanidad y al Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco. Con fecha 14 de julio de 2005 se

Ur Partzuergoari eta Espainiako Iparraldeko Ur-konfederazioari.

2007ko martxoaren 21ean, Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari; espedientea 2007ko abuztuaren 13an osatu zen.

2007ko ekainaren 20an, sustatzaileak instalazioa aldatzeko jakinarazpena igorri zuen, klinker-silo berria eraiki behar zuela-eta.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Sociedad Financiera y Minera SA -Cementos Rezolak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak, 2008ko urtarrilaren 14an, txostena eskatu zien Arrigorriagako Udalari, Bizkaiko Osasun Publikoko Zuzendariordetzari, eta Espainiako Iparraldeko Ur-konfederazioari.

2008ko otsailaren 11n, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Sociedad Financiera y Minera SA -Cementos Rezolaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituta.

2008ko otsailaren 27an, sustatzailearen komunikazio bat jaso zen, eta ingurumeneko baimen bateratuaren ebazpen-proposamenari buruzko gogoeta batzuk egiten ziren bertan.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babesmaila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren, uztailaren 1eko Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duena-

solicita informe al Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia y a la Confederación Hidrográfica del Norte.

Con fecha 21 de marzo de 2007, el Órgano Ambiental requirió al promotor que incorporara documentación adicional, completándose el expediente el 13 de agosto de 2007.

El promotor remite, con fecha 20 de junio de 2007, notificación de modificación de la instalación, debida a la construcción de un nuevo silo de clíncker.

Una vez constatada la suficiencia de la documentación aportada, por Resolución de 14 de noviembre de 2007, del Viceconsejero de Medio Ambiente, se acuerda someter a información pública, por un periodo de 30 días hábiles, el proyecto promovido por Sociedad Financiera y Minera, S.A.-Cementos Rezola, en orden a la presentación de cuantas alegaciones se estimasen oportunas, procediéndose a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco y en el del Territorio Histórico de Bizkaia, ambas con fecha de 3 de diciembre de 2007. Igualmente se procede a efectuar la oportuna notificación personal a los vecinos colindantes.

Una vez culminado el trámite de información pública se constata que no se han presentado alegaciones.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 17 y 18 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, la Dirección de Calidad Ambiental solicita el 14 de enero de 2008 informe al Ayuntamiento de Arrigorriaga, a la Subdirección de Salud Pública de Bizkaia y a la Confederación Hidrográfica del Norte.

Con fecha 11 de febrero de 2008, y en aplicación del artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el conjunto del expediente es puesto a disposición de Sociedad Financiera y Minera, S.A.-Cementos Rezola incorporando la Propuesta de Resolución elaborada por el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

El día 27 de febrero de 2008 se recibe comunicación del promotor en el que se formulan diversas consideraciones en relación con la Propuesta de Resolución de Autorización Ambiental Integrada.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, constituye el objeto de la misma evitar o, cuando ello no sea posible, reducir y controlar la contaminación de la atmósfera, del agua y del suelo, mediante el establecimiento de un sistema de prevención y control integrado de la contaminación, con el fin de alcanzar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto.

En consonancia con lo dispuesto en el artículo 3 del Real Decreto 509/2007, de 20 de abril, por el que se aprueba el Reglamento para el desarrollo y ejecución de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y con-

ren, 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Sociedad Financiera y Minera SA -Cementos Rezolaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakinak baliotu eta ekoiztekoa; hondakin ez-arriskutsuak kudeatzekoa; ibilgura eta kolektorera isurtzeko baimena, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta hori zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak ordezten du jarduera sailkatuetarako udallizentziaren prozedura, azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzkoan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena.

Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. Aipatutako 29. artikulu horrek dioenez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Sociedad Financiera y Minera SA -Cementos Rezolari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak, eta Arrigorriagako Udalaren eta

trol integrados de la contaminación, se integran en la presenta autorización todos los elementos y líneas de producción que aun sin estar enumerados en el anexo 1 de la Ley 16/2002, se desarrollen en el lugar del emplazamiento de las instalaciones cuya actividad motivó su inclusión en el ámbito de aplicación de dicha ley, y guarden relación técnica con dicha actividad.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 9 de la Ley 16/2002, se somete a autorización ambiental integrada la construcción, montaje, explotación o traslado, así como la modificación sustancial, de las instalaciones en las que se desarrollen alguna de las actividades incluidas en el Anejo 1. La presente autorización mantiene como finalidad básica, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 11, la fijación de todas aquellas condiciones que garanticen el cumplimiento del objeto de la norma por parte de las instalaciones incluidas en su ámbito de aplicación, a través de un procedimiento que asegure la coordinación de las distintas Administraciones Públicas que deben intervenir en la concesión de dicha autorización, para agilizar trámites y reducir las cargas administrativas de los particulares, a la par que viene a integrar en un solo acto de intervención administrativa las autorizaciones ambientales previstas en la legislación en vigor. En el caso de Sociedad Financiera y Minera, S.A.-Cementos Rezola tales autorizaciones se circunscriben a las de valorización y producción de residuos, y la de gestor de residuos no peligrosos, vertido a cauce y a colector y, entre otras determinaciones de carácter ambiental, las referidas a la materia de contaminación atmosférica y en materia de prevención y corrección de la contaminación del suelo, constatando la participación en el expediente, a través de la emisión de los preceptivos informes, de otras administraciones y organismos competentes.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 29 de la Ley 16/2002, el procedimiento para el otorgamiento de autorización ambiental integrada sustituye al procedimiento para el otorgamiento de la licencia municipal de actividades clasificadas prevista en el Decreto 2414/1961, de 30 de noviembre, sobre Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas, salvo en lo referente a la resolución definitiva de la autoridad municipal.

A estos efectos la autorización ambiental integrada, será, en su caso, vinculante para la autoridad municipal cuando implique la denegación de licencias o la imposición de medidas correctoras, así como en lo referente a aspectos medioambientales recogidos en el artículo 22 de la mencionada norma. Afirma el citado artículo 29, que lo anteriormente dispuesto, se entiende sin perjuicio de las normas autonómicas sobre actividades clasificadas que en su caso fueran aplicables. En aplicación de las prescripciones transcritas, el procedimiento de autorización ambiental integrada referido a Sociedad Financiera y Minera, S.A.-Cementos Rezola ha incluido el conjunto de trámites previstos al efecto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección de

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak eskatu dira, espedientean agertzen den bezala.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenen erabilera eta aplikatzekoa den alorreko legerian ezarritako baldintzak. Bereziki Europako Batzordearen 2001eko abenduko «Reference Document on Best Available Techniques in the Cement and Lime Manufacturing Industries» BREF agiriaren edukia hartu da kontuan. Gainera, sektoreko araudiei dagokienez, kasu honetan bereziki aplikatzekoa da hondakinak errausteari buruzko maiatzaren 30eko 653/2003 ED.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena egin zen, eta Sociedad Financiera y Minera SA -Cementos Rezolak sustatutako proiektuari aplikatzekoak diren baldintzak gehitu ziren.

Gorago aipatutako izapidetzeak azaldutakoari jarraituz burututa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan aurreikusitako entzunaldi-izapidea bete da. Horri dagokionez, kontuan izan behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen bidez sustatzaileak izapide honetan egindako gogoetak aztertu direla, eta ebazpen hau egiterakoan ere kontuan hartu direla.

Organo hau ingurumeneko baimen integratu hau emateko eskuduna da, aipatutako legearen 13. artikuluan eta 2005eko urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duenaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko otsailaren 8an emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Legea burutzeko araudia onartzen duena; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juri-

Medio Ambiente del País Vasco, incorporándose, con el resultado que obra en el expediente, los informes del Ayuntamiento de Arrigorriaga y del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

Por último, en orden a determinar los valores límites de emisión de las sustancias contaminantes que puedan ser emitidas por la instalación, así como otras condiciones para la explotación de la misma, a fin de garantizar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto, en la formulación de la presente Resolución se ha tenido en cuenta tanto el uso de las mejores técnicas disponibles como las medidas y condiciones establecidas por la legislación sectorial aplicable. En particular se ha considerado el contenido del documento BREF «Reference Document on Best Available Techniques in the Cement and Lime Manufacturing Industries», de diciembre de 2001, de la Comisión Europea. Además en lo que se refiere a las normativas sectoriales, en este caso resulta de aplicación, en especial, el RD 653/2003, de 30 de mayo, sobre incineración de residuos.

Una vez analizados los informes obrantes en el expediente se suscribió Propuesta de Resolución, a la que se incorporaron las condiciones aplicables al proyecto promovido por Sociedad Financiera y Minera, S.A.-Cementos Rezola.

Culminadas, de acuerdo con lo expuesto, las tramitaciones arriba referidas, se ha cumplido el trámite de audiencia contemplado en el artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación. En este sentido, debe tenerse en cuenta que por los servicios técnicos adscritos a este órgano se ha procedido al análisis de las consideraciones realizadas por el promotor en este trámite, habiéndose tenido en cuenta las mismas en la elaboración de la presente Resolución.

Considerando la competencia de este órgano para la concesión de la presente autorización ambiental integrada de conformidad con lo previsto en el artículo 13 de la mencionada norma y el artículo 9 del Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

Vistos la propuesta de resolución de 8 de febrero de 2008 del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el Real Decreto Legislativo 1302/1986, de 28 de junio, de Evaluación de Impacto Ambiental, modificado por la Ley 6/2001, de 8 de mayo, por la que se modifica el anterior, el Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento para su ejecución, el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 30/1992, de

dikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Madrilgo udalerriko Alvento enpresa-parkeko Vía de los Poblados, 1. zenbakiko C eraikineko 6. solairuan duen eta IFK: A28036408 zenbakia duen Sociedad Financiera y Minera SA -Cementos Rezolari ingurumeneko baimen bateratua ematea, zementua ekoizteko jarduerarako Arrigorriagako (Bizkaia) udalerrian, eta ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituz.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 3.1 kategorian sartuta dago, «Labe birakarietan eguneko 500 tona zementu eta/edo klinker baino gehiago fabrikatzeko gaitasuna duten instalazioak, edo labe birakarietan eguneko 50 tona kare baino gehiago fabrikatzeko gaitasuna dutenak, edo bestelako labeetan eguneko 50 tona baino gehiago fabrikatzeko gaitasuna dutenak».

Sociedad Financiera y Minera SA -Cementos Rezolaren instalazioak Arrigorriagako (Bizkaia) udalerriko Arane auzoan daude, eta 307.215 m2-ko azalera okupatzen dute.

Instalazioaren ekoizteko ahalmena urtean 510.000 t klinker eta 660.000 tona zementukoa da.

Bertan zementua fabrikatzen da labe birakarian. Lehengai naturalez gain (kareharria, marga eta harea) enpresak horien ordezko bestelako materialak erabiltzen ditu (prozesu termikoetako errautsak, ijezketatiko axalak, hormigoi-hondakinak eta hormigoi-lohiak, etab.).

Gainera, 2008ko ekainerako, hondakin ez-arriskutsuak baliotzeko instalazio bat eraikitzea aurreikusten da, eta 2007ko urrian hiru ganberako zementu-siloa eraikitzen amaitu da.

Fabrikan zementua fabrikatzeko behar den energia 800 thermia/t klinker eta 70.000.000 Kwh/urte energia elektrikokoa da gutxi gorabehera. Erregaiei dagokienez, kokea, harrikatza, gas naturala, gasolioa eta fuel-olioaz gain, «erregai alternatiboak» izeneko beste industria-azpiproduktu batzuk erabiltzen dira, hala nola haragi-irinak.

Klinker-labean hondakinak zein erregai alternatiboak baliotzen dira, horien artean animalia-jatorriko haragi-irinak. Gordinkia eta zementua fabrikatzeko prozesuan hainbat hondakin baliotzen dira, hala nola prozesu termikoetako errauts hegakorrak, altzairugintzako zepak, ijezketatiko axalak, galdatze-industriako hareak, etab. Halaber, zementua ehotzeko prozesuan, jatorri naturaleko lehengaien ordezko gisa beste indus-

26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y demás normativa de aplicación,

RESUELVO:

Primero.– Conceder a Sociedad Financiera y Minera, S.A.-Cementos Rezola, con domicilio social en el Parque Empresarial Alvento, Vía de los Poblados, n.º 1, Edificio C-6.ª planta, del término municipal de Madrid y CIF: A28036408, Autorización Ambiental Integrada para la actividad de producción de cemento, en el término municipal de Arrigorriaga (Bizkaia), con las condiciones establecidas en el apartado Segundo de esta Resolución.

La actividad se encuentra incluida en la categoría 3.1. «Instalaciones de fabricación de cemento y/o clínker en hornos rotatorios con una capacidad de producción superior a 500 toneladas diarias, o de cal en hornos rotatorios con una capacidad de producción superior a 50 toneladas por día, o en hornos de otro tipo con una capacidad de producción superior a 50 toneladas por día« del anexo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación.

Las instalaciones de Sociedad Financiera y Minera, S.A.-Cementos Rezola, se encuentran en el Barrio Arane situado en el término municipal de Arrigorriaga (Bizkaia), ocupando una superficie de 307.215 m2.

La capacidad de producción de la instalación es superior a las 510.000 t de clínker y 660.000 toneladas anuales de cemento.

La actividad que en ella se desarrolla, es la fabricación de cemento en horno rotatorio, donde, además de materias primas naturales (caliza, marga y arena), la empresa emplea otros materiales como sustitutivo parcial de dichas materias (cenizas procedentes de procesos térmicos; cascarilla de procesos de laminación, residuos de hormigón y lodos de hormigón, etc.).

Además, para junio de 2008 se prevé la construcción de una instalación para la valorización de residuos no peligrosos y en octubre de 2007 ha finalizado la construcción del silo tricameral de cemento.

La energía necesaria para la fabricación de cemento en la planta es de aproximadamente 800 termias/t de clínker y 70.000.000 Kwh/año de energía eléctrica. En cuanto a combustibles, además de coque, hulla, gas natural, gasoil y fuel, se utilizan otros subproductos industriales denominados «combustibles alternativos» como las harinas de carne.

En el horno de clínker se valorizan tanto residuos, como combustibles alternativos, entre los que se encuentran las harinas de carne de origen animal. En el proceso de fabricación de crudo y cemento se valorizan diferentes residuos, como las cenizas procedentes de procesos térmicos, las escorias de acería, cascarilla de procesos de laminación, arenas procedentes de la industria de fundición, etc. Asimismo se valorizan en el

tria-jardueretako hondakinak baliotzen dira, hala nola zentral termikoko errauts hegakorrak, siderurgiako zepak edo igeltsu kimikoa.

Fabrikak prebentziozko eta isurtze atmosferikoak murrizteko neurriez hornitu ditu bere ekipoak iturri lokalizatuetarako (mahuka-iragazkiak eta iragazki elektrostatikoak) eta iturri sakabanatuetarako (zoladura eta bideak garbitzea, xurgapen finkoa eta higikorra; aireberritzea eta mahuka-iragazkietan biltzea, eta manipulazio-sistema automatikoa duen biltegiratze itxia).

Edateko ura Arrigorriagako udal-saretik hornituko da fabrikara; industria-ura, berriz, batik bat makinak hozteko erabiltzen dena, Nerbioi ibaitik hartuko da. Halaber, hozteko eragiketak egin ondoren, prozesuan sortutako ura bertara sartuko da berriz, zirkuitu itxian jarduten baita. Udal-sareko zein ibaiko ur-kontsumoa urteko 158.431 m3-koa da.

Isurtze atmosferikoak 11 isurtze-fokutakoak dira hein handi batean: ikatz-errota, zementu-labea, klinker-hozkailua, PSP, krupp eta polysius zementu-errotak, berogailu-galdara, ontziratzeko makina zaharra, ontziratzeko makina berria, birrinketa primarioa eta sekundarioa. Gainera, isurtze barreiatuak sortzen dira garraioan, manipulazioan (zamalanak, ontziratzea) eta lehengaiak eta erregai solidoak gordetzean. Fokuetan erabilitako arazte-sistema mahuka-iragazkia eta elektroiragazkia dira.

Hautsa ingurunera iristea ekiditeko, makina guztiek presio baxuan lan egiten dute. Horregatik, aire-masa handiak mugitu eta gero garbitu egin behar dira. 38 mahuka-iragazki daude instalazioetan banatuta, eta iragazkietako hautsa prozesura birzirkulatzen da zuzenean, berreskuratze-sistema itxi baten bidez. Halaber, 7.000 tonako hiru ganberako silo bat izango da zementua metatzeko.

Industria-ura, batik bat makinak hozteko erabilia, Nerbioi ibaitik hartu eta bitarteko bi gordailutan gordetzen da hozteko sistemetara banatu aurretik.

Jarduerak ez du prozesu-uretako hondakinik sortzen, prozesuan sortutako ura, hozteko eragiketak egin ondoren, bertara sartzen baita berriz, zirkuitu itxian jarduten delako.

Jardueran sortutako efluenteak fabrikan zein harrobian sortutako jariatze-uretakoa da, eta Arane errekastora isurtzen dira, eta ondoren Nerbioi ibaira. Ur sanitarioa Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko kolektorera isurtzen da.

proceso de molienda de cemento, como sustitutos de materias primas de origen natural, residuos de otras actividades industriales como las cenizas volantes de central térmica, escorias siderúrgicas o el yeso químico.

La planta ha dotado a sus equipos de medidas de prevención y reducción de emisiones atmosféricas tanto para las fuentes localizadas (filtros de mangas y filtros electroestáticos), como para las fuentes dispersas (pavimentación, limpieza y regado de viales; aspiración fija y móvil; ventilación y recogida en los filtros de mangas; y almacenamiento cerrado con sistema de manipulación automático).

El suministro de agua potable a fábrica se efectuará mediante la red municipal de Arrigorriaga, mientras que el agua industrial, utilizada principalmente para la refrigeración de las máquinas, procederá del río Nervión. Asimismo, el agua generada en el proceso, una vez efectuadas las operaciones de refrigeración, se reincorporará de nuevo al mismo dado que se trabaja en circuito cerrado. El consumo de agua, tanto de la red municipal como del río asciende a 158.431 m3/año.

Las emisiones a la atmósfera provienen principalmente de sus 11 focos de emisión: molino de carbón, horno de cemento, enfriador de clínker, molinos de cemento PSP, krupp y polysius, caldera de calefacción, envasadora vieja, envasadora nueva, trituración primaria y secundaria. Además se generan emisiones difusas durante las operaciones de transporte, manipulación (carga y descarga, envasado) y almacenamiento de materias primas y combustibles sólidos. El sistema de depuración empleado en los focos es el filtro de mangas y el electrofiltro.

Para impedir que el polvo pase al ambiente, todas las máquinas trabajan en depresión, lo que hace necesario el movimiento y posterior limpieza de grandes masas de aire. Existen 38 filtros de mangas distribuidos por las instalaciones, donde el polvo procedente de los filtros, es recirculado de nuevo directamente al proceso, a través de un sistema cerrado de recuperación. Asimismo se dispondrá de un silo tricameral de 7.000 t para acopio de cemento.

El agua industrial, utilizada principalmente para la refrigeración de las máquinas, procede de del río Nervión, siendo almacenada en dos depósitos intermedios antes de su distribución a los sistemas de refrigeración.

La actividad no genera vertidos procedentes de aguas de proceso, ya que el agua generada en el proceso, una vez efectuadas las operaciones de refrigeración, se reincorpora de nuevo al mismo, dado que se trabaja en circuito cerrado.

Los diferentes efluentes generados en la actividad provienen de las aguas de escorrentía generadas tanto en la zona de fábrica como en la zona de cantera, que se vierten al arroyo Arane y posteriormente al río Nervión, y las aguas sanitarias que se vierten al colector del Consorcio Bilbao Bizkaia.

Jariatze-urak husteko, lau dekantazio-putzu daude, harrobietako partikula solidoak eta erregai solido eta lehengaiak gordetzean sortutakoak ibaira isurtzea minimizatzen dutenak.

Fabrikan sortutako hondakin arriskutsuak laborategiko, osasun-zerbitzuko, zerbitzu orokorretako eta instalazioen eraispenekoak dira.

Proiektuak Teknika Erabilgarri Onentzat (TEO) jotzen diren instalazio eta ekipoak ditu, erreferentziako agiri hauen arabera: Reference Document on Best Available Techniques in the Cement and Lime Manufacturing Industries (2001); eta zementua fabrikatzeko Espainiako Teknika Erabilgarri Onenen Gidaliburua (2003). Ezarritako neurrien artean hauek daude: etapa anitzeko zikloien aurreberogailu eta aurrekiskalgailudun labe birakaria, aurrekiskalgailuko konbustio-prozesuaren kontrolerako sistema (CO gehiegi sortzea ekiditeko) eta erregaien elikagailu automatikoak (prozesuaren hornidura egonkorra eta uniformea izatea egiten dute); NOx isurtzeak murrizteko sistema instalatzea; etapa anitzeko trukagailu eta aurrekiskalgailudun lehorketa bidezko labeetan SO2 murrizteko sistema, eta iturri lokalizatuetatik zein sakabanatuetatik partikulak isurtzea murrizteko teknikak.

Instalazioa Euskal Autonomia Erkidegoko hondakinen kudeaketarako zikloan sartzen da, bertan baliotzen baitira hondakinak, lehengai eta erregai alternatibo gisa erabiliz.

Bigarrena.– Sociedad Financiera y Minera SA -Cementos Rezolak Arrigorriagako (Bizkaia) udalerrian zementua ekoizteko jarduerarako ondorengo baldintzak eta eskakizunak jartzea:

A) Erantzukizun zibileko aseguru bat eratu beharko da bi milioi (2.000.000) euroko zenbatekoaz, ondorengoak estaliko dituena: hirugarren pertsonei edo horien ondasunei sortutako balizko kalteengatiko kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz ingurumen aldatua konpondu eta berreskuratzeko kostuak.

Aseguru horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da, aurreko 12 hilabeteetako kontsumo-prezioen indizearen arabera (KPI) handituz.

B) Fidantza-prestazioa seiehun mila (600.000) euroko zenbatekoaz, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko oinarrizko araudia onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 28. artikuluaren 2. atalean ezarritako baldintzetan, eta artikulu horren 3. atalean aurreikusitako edozein modutan eratu ahal izango da. Fidantza horren zenbatekoa hondakinak tratatu eta gordetzeko gehienezko ahalmenen arabera zehazten da.

Para la evacuación de las aguas de escorrentía, se dispone de cuatro balsas de decantación, que minimizan el aporte al río de las partículas sólidas procedentes de las zonas de cantera y almacenamiento de combustibles sólidos y materias primas.

Los residuos peligrosos generados en la planta se deben a actividades de laboratorio, servicio medico, servicios generales y desmantelamiento de las instalaciones.

El proyecto incorpora instalaciones y equipos que se consideran Mejores Técnicas Disponibles (MTDs), de acuerdo con los siguientes documentos de referencia: Reference Document on Best Available Techniques in the Cement and Lime Manufacturing Industries (2001); y la Guía de Mejores Técnicas Disponibles en España de fabricación de cemento (2003). Entre las medidas implantadas se encuentran las siguientes: horno rotatorio con precalentador de ciclones multietapas y precalcinador, sistema de control del proceso de combustión del precalcinador para evitar la generación excesiva de CO y alimentadores automáticos de combustible que logran un suministro estable y uniforme al proceso; instalación de un sistema para la reducción de las emisiones de NOx; sistema para la reducción de SO2 en los hornos de vía seca con intercambiador multietapas y precalcinador y técnicas para la reducción de emisiones de partículas, tanto desde focos localizados como desde focos dispersos.

Además, la instalación se integra en el ciclo de gestión de residuos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, ya que en ella se produce la valorización de residuos mediante su utilización como materias primas y combustibles alternativos

Segundo.– Imponer las siguientes condiciones y requisitos para la actividad de producción de cemento, desarrollada por Sociedad Financiera y Minera, S.A.-Cementos Rezola en el término municipal de Arrigorriaga (Bizkaia).

A) Deberá constituirse un seguro de responsabilidad civil por una cuantía de dos millones de euros (2.000.000) que cubrirá el riesgo de indemnización por los posibles daños causados a terceras personas o a sus bienes y los costes de reparación y recuperación del medio ambiente alterado, derivados del ejercicio de la actividad objeto de autorización.

El importe de dicho seguro podrá ser actualizado anualmente, incrementándose en función del Índice de Precios al Consumo (IPC) de los 12 meses anteriores.

B) Prestación de fianza por un importe de seiscientos mil (600.000) euros en los términos establecidos en el artículo 28, apartado 2, del Real Decreto 833/1988, de 20 de julio, por el que se aprueba el Reglamento para la ejecución de la Ley 20/1986, básica de residuos tóxicos y peligrosos, que podrá constituirse en cualquiera de las formas previstas en el apartado 3 de dicho artículo. El importe de dicha fianza se determina en función la capacidad máxima de tratamiento y de almacenamiento de residuos.

Fidantza horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da, aurreko 12 hilabeteetako kontsumo-prezioen indizearen arabera (KPI) handituz.

C) Maiatzaren 30eko hondakinen errausketari buruzko 653/2003 Errege Dekretuaren 10.d) artikuluan xedatutakoa betez, instalazioaren kudeaketarako pertsona bat ezarri beharko da, instalazioaren funtzionamenduagatik eta kudeaketagatik eratorritako erantzukizun zibil edo penalak bere gain hartu nahiz ez. Cementos Rezola SA enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dio Administrazioarekiko harremanen arduradunari buruz emandako edozein daturen aldaketa (izen-abizenak, helbidea eta titulazioa).

D) Neurri babesle eta zuzentzaileak sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean den araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

D.1.– Zementua metatzeko siloa eraikitzeko baldintza orokorrak.

Aurkeztutako agirien arabera, Cementos Rezola SA enpresak zementua metatzeko 7.000 t-ko silo bat izango du, hiru barne-konpartimentutan banatuta. 4. eta 5. siloen artean kokatuko da, silo berriaren begi-inpaktua murrizteko, eta ondoko siloen antzeko garaiera izango du (40-42 m). Siloaren zimendua kokaguneko kare-formazioen gainean egingo da zuzenean. Siloaren behealdeak hiru hutsune izango ditu, kargatzeko hiru kale bertatik pasatzeko. Kaleek 3,50 m-ko zabalera erabilgarria izango dute, eta hormari lodia eman beharko zaio erdiko kaleko bi aldeetan, 0,8 m-ko zabalerako pilastra irtenen bidez. Kargatzeko kale bakoitzean zoruan landatutako baskula bat jarriko da, kargatze-eragiketan kamioak pisatzeko.

Siloaren sabaia Deck erako estalki batekin diseinatuko da metalezko habeen gainean, eta perimetro-inposta batekin errematatuko da. Siloaren estalkia forma konoenborkarako metalezko egitura batez osatuko da, goialdean eraztun batean elkartzen diren profil normalizatuekin eraikia.

Siloaren eraikuntzarekin lotutako jarduerak Sailburuordetza honetan aurkeztutako agirien arabera egingo dira.

D.2.– Hondakinak onartu, hartu, manipulatu eta gordetzeko baldintzak eta kontrolak.

Sociedad Financiera y Minera SA -Cementos Rezolak zementua fabrikatzeko jardueran hondakinak baliotuko ditu, hondakinen zenbait tipologia lehengaiaren eta erregaiaren ordezko partzial gisa erabiliz.

Instalazioan baliotze material edo energetikoa egiteko onartzen diren hondakinak ondorengo ataletan

El importe de dicha fianza podrá ser actualizada anualmente, incrementándose en función del Índice de Precios al Consumo (IPC) de los 12 meses anteriores.

C) En cumplimiento de lo establecido en el artículo 10.d) del Real Decreto 653/2003, de 30 de mayo, sobre incineración de residuos, con independencia de las posibles responsabilidades civiles o penales que pudieran derivarse como consecuencia del funcionamiento y gestión de las instalaciones, se dispondrá de una persona específicamente responsable de la gestión de la instalación. Cementos Rezola, S.A notificará a la Viceconsejería de Medio Ambiente cualquier modificación de los datos facilitados respecto al responsable de las relaciones con la Administración (nombre y apellidos, domicilio y titulación).

D) Las medidas protectoras y correctoras se ejecutarán de acuerdo con lo previsto en la documentación presentada por el promotor ante esta Viceconsejería de Medio Ambiente, de acuerdo a la normativa vigente y con lo establecido en los apartados siguientes:

D.1.– Condiciones generales de construcción del silo para acopio de cemento.

De acuerdo con la documentación presentada, Cementos Rezola S.A. dispondrá de un silo de acopio de cemento de 7.000 t distribuidas en tres compartimentos interiores. Se situará entre los silos 4 y 5 a fin de reducir el impacto vidual del nuevo silo teniendo una altura similar a la de los silos adyacentes (40-42 m). La cimentación del silo será directa sobre las formaciones calizas del emplazamiento. La parte baja del silo dispondrá de tres huecos para paso de tres calles de carga bajo el silo de 3,50 m de anchura útil, requiriendo un regruesamiento de la pared mediante pilastras salientes de 0,8 m de anchura a ambos lados de la calle central. En cada una de las calles de carga se instalará una báscula empotrada en el suelo para realizar el pesaje de los camiones durante la operación de cargue.

El techo del silo se diseñará con una cubierta tipo Deck sobre vigas metálicas y se rematará con una imposta perimetral. La cubierta del silo estará formada por una estructura metálica de forma troncocónica, construida con perfiles normalizados que se unen en la parte superior en un anillo.

Las actividades relacionadas con la construcción del silo se realizarán de acuerdo con la documentación presentada ante esta Viceconsejería.

D.2.– Condiciones y controles para la aceptación, recepción, manipulación y almacenamiento de residuos.

Sociedad Financiera y Minera, S.A.-Cementos Rezola, procederá en su actividad de fabricación de cemento a la valorización de residuos mediante la utilización de diferentes tipologías de residuos como sustituto parcial de la materia prima y del combustible.

Los residuos admisibles en la planta para su valorización material o energética se detallan en los siguientes

zehaztuko dira. Gainera, horiek zuzen kudeatzeko zehaztapenak jasotzen dira.

Hondakin jakin bat onartzeko aukera egiaztatu ondoren, Sociedad Financiera y Minera SA -Cementos Rezolak hondakin horren titularrari onarpena ziurtatzen duen agiria igorriko dio, onarpen horren baldintzak ezarriz.

Fabrikan tratatuko den hondakin berri bakoitzarekin, langileak hasierako karakterizazio bat egingo du, hori tratatzeko aukera egiaztatzearren. Cementos Rezolak Ingurumen Sailburuordetza honen onespen espresa eskatu beharko du fabrikan hondakin berri bat tratatzeko, eta eskaera horretan egindako karakterizazioaren emaitzak sartu beharko ditu, eta baita hondakina onartzeko parametro mugatzaile edo baldintzatzaileen proposamen bat ere, eta hala badagokio, partida bakoitza hartu aurretik analizatu behar direnena. Ingurumen-organoak fabrikan hondakin jakin batzuk onartzeko baimena ukatu ahal izango du, horientzat baliotze materiala egiteko lehentasunezko biderik badago.

D.2.1.– Hondakin onargarriak.

D.2.1.a.– Hondakin onargarriak lehengaiaren ordezko partzial gisa.

Lehengaiaren ordezko partzial gisa erabiltzeko hondakin ez-arriskutsu onargarriak hauek izango dira:

apartados que contienen asimismo especificaciones para su correcta gestión.

Comprobada la posibilidad de admisión de un determinado residuo, Sociedad Financiera y Minera, S.A.-Cementos Rezola, remitirá al titular del mismo documento acreditativo de su aceptación en el que se fijen las condiciones de ésta.

Para cada nuevo tipo de residuo que se prevea tratar en la planta, el operador realizará una caracterización inicial del mismo, a fin de verificar su posibilidad de tratamiento. Cementos Rezola deberá solicitar aprobación expresa de esta Viceconsejería de Medio Ambiente para tratar en la planta un nuevo residuo debiendo incluir en dicha solicitud los resultados de la caracterización efectuada, así como una propuesta de parámetros limitativos o condicionantes para la aceptación del residuo y los que, en su caso, deban analizarse antes de la recepción de cada partida. El órgano ambiental podrá denegar la autorización para aceptar en planta determinados residuos para los que exista una vía preferente de valorización material.

D.2.1.– Residuos admisibles.

D.2.1.a.– Residuos admisibles como sustituto parcial de materia prima.

Los residuos no peligrosos admisibles para su utilización como sustito parcial de materia prima serán los siguientes:

Hondakin onargarria	HEZ kodea
Ur-araztegiko lohien tratamenduko errautsak	19 01 12
Galdaketako hareak	10 09 08
Ijezketa-axala	10 02 10
Turbaren eta tratatu gabeko zuraren errauts hegakorrak	10 01 03
Tratatu gabeko zepak (altzairugintzako zepa zuria barne)	10 02 02
Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	10 02 10
10 09 05 kodean zehaztutakoak ez diren isurketa gabeko galdaketako ardatz eta moldeak	10 09 06
10 09 07 kodean zehaztutakoak ez diren isurketadun galdaketako ardatz eta moldeak	10 09 08
10 10 11 kodean zehaztu ez diren beste partikula batzuk	10 10 12
10 13 09 eta 10 13 10 kodeetan zehaztutakoak ez diren zementuz osatutako materialen hondakinak	10 13 11
Hormigoi-hondakinak eta hormigoi-lohiak	10 13 14
19 01 13 kodeetan zehaztutakoak ez diren errauts hegakorrak	19 01 14

Residuo admisible	*Código LER*
Cenizas procedentes del tratamiento de fangos de la EDAR	*19 01 12*
Arenas de fundición	*10 09 08*
Cascarilla de laminación	*10 02 10*
Cenizas volantes de turba y madera no tratada	*10 01 03*
Escorias no tratadas (incluida la Escoria Blanca de acería)	*10 02 02*
Residuos no especificados en otra categoría	*10 02 10*
Machos y moldes de fundición sin colada distintos de los especificados en el código 10 09 05	*10 09 06*
Machos y moldes de fundición con colada distintos de los especificados en el código 10 09 07.	*10 09 08*
Otras partículas distintas de las especificadas en 10 10 11	*10 10 12*
Residuos de materiales compuestos a partir de cemento distintos de los especificados en los códigos 10 13 09 y 10 13 10	*10 13 11*
Residuos de hormigón y lodos de hormigón	*10 13 14*
